

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzen eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan egin beharreko jarduerak dira. Ondoko hauek dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.

---

Funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, gure enpresa lehengaietatik produktuak sortzeko prozesuaz arduratzen den erakundea da, diseinu pertsonalizatuz apaindutako aterki ontziak diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituenak.

Gaur egungo ikerketek diote pertsona gehiagok erosten dituztela produktu desberdinak webgune desberdinetatik. Horregatik, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak izatea. Gure produktua guk sortutako webgunetik salduko da. Horretaz gain, Ezpeletak dituen kanalak aprobetxatuko ditugu eta etxeko tresna salmenta ezagunekin kontaktuan jarriko gara hauek aurrez-aurre salduko dute gure produktua edota beraiek dituzten webgune bitartez.

Alde batetik, Beti-xiku enpresak webgune bat izango du enpresaren inguruko informazio guztia biltzen dituenak, bertatik bezeroek gure inguruko informazioa irakurri dezakete.

Beste aldetik, on line denda bat ere izango dugu. Bertan gure produktu guztiak erosteko aukera izango dituzte bezeroek.